

ESKAINTZA

Olatz Altuna
Maria-Jose Azurmendi
Iñaki Martinez de Luna
Soziolinguistika Klusterra

Helbide elektronikoa: olatz@soziolinguistika.org

Beti gure artean, beti laguntzeko prest, beti bide-erakusle, gertuko eta jakintsu, egitasmoz egitasmo ilusioz gainezka; horrelaxe ezagutu dugu guk Joxe Luis adiskidea. Luzaro jardun dugu elkarrekin, baina, oraindik gazte ikusten nonbait, ez zaigu iruditzen laurogei urte betetzera doanik.

Laurogei urte betetzear dituela eta, urteurren horrek aukera eman digu aspaldian eskaini nahi genion omenalditxo egiteko. Badakigu ale bakarrak nekez estaltzen ahal duela Joxe Luisen itzala. Halaz guztiz, motz geratuko garea jakinda ere, BAT aldizkariko ale hau eskaini nahi izan diogu.

Ibilbide oparoa egin du eta egiten ari da Joxe Luis, lantzen dituen askotariko diziplinetan. Gurera mugatuta, soziolinguistikan maisu dugu. Gure artean tradizio gutxikoa zelarik, ezinbestekoa jo zuen

soziolinguistika euskara berreskuratzeko eta normalizatzeko. Euskal soziolinguistikaren hastapenetan, dibulгатzen eta eragiten aritu zen Joxe Luis gogo biziz. Eta gogo horrek eraginda sortu zen BAT, ez bat-batean. 1989an, aldizkariaren sortze-ekitaldian horrela mintzo zitzaigun:

“Gure nazio-hizkuntza berriro Euskal Herriaren mintzaide eta oinarri bihurtuko bada, beraz, bi gauza lortu behar ditugu; eta lorpen horretan laguntzekotan sortu da eskuetan duzun aldizkari hau.

Bata, hizkuntzaren alorreko fenomenoak ahalik eta ongien ezagutzea. Lehendabizi jakin egin behar da, egia ezagutu behar da al bait zehazkienik; beste herrietako saioak, arrakastak eta porrotak aztertu behar dira.

Bestea, berriz, hizkuntza pizkundean herria bera

interesatu gabe, soluziorik ez dagoela sinetsi eta sinestarazi behar dugu. [...] Herriak ez badu nahi, herriak ez badu nazio-hizkuntzaren arazoa bere gain hartzen, jai dago”¹.

Hor mugarri bat dago. Hitz horien bidez ondo finkatuta utzi zuen etorkizuneko lanaren norabidea.

Geroztik, aldizkariaren zuzendari izan genuen hamar urtez, 1989tik 2001era. Ondoren, “Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen” (SEI) ekimeneko lehendakari izan genuen, eta ekimen hartatik eratorri zen gaur egungo “Soziolinguistika Klusterra”, 2004ko martxoan sortu zena.

Horra, bada, labur-labur adierazita, jardunbide oparo baten zertzelada nagusiak. Areago, ordea, giza aldeari begiratu zergo, esan dezakegu larre motzean zaildutako adiskideak larre-soro joria utzi digula. Esan dezakegu konpromisozko lankidetzaz zintzoa eskaini digula: zenbaitetan egoera zailak nahigabetuta, baina beti ilusioz gainezka. Landare arantzadunak ingurumarian eta txilarrek loretan, horrela ezagutu dugu txillardegia. Eskerrik asko, bihotzez, Txillardegia. •

1. BAT Aldizkaria, 1, 10.